

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Dirulaguntzen Udal Plan Estrategikoa aldatzea eta honako udal-plan hau arautzen duten oinarriak eta haren berariazko deialdia onestea: "Gasteizko udalerriko merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntzak. 2021. urtea"

2020ko abenduaren 11n, Gasteizko Udalaren 2021erako dirulaguntzak emateko deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak onetsi ziren, Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bitartez; haien 2. apartatuan zerrendatuta daude aurreikusitako dirulaguntza-eremu eta -ildoak, eta haien artean, Merkataritza Zerbitzuan, bi ildo hauek daude: "Merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen nahiz ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntzak" eta "Gasteizen ostalaritza-enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak". 2020ko abenduaren 30eko ALHAOn (148. zk.) argitaratu ziren oinarri orokor haiek; Udalaren webgunean kontsulta daitezke (www.vitoria-gasteiz.org), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

2021eko apirilaren 9an egindako bilkuran, honako hau erabaki du Tokiko Gobernu Batzarrak:

Lehen. Dirulaguntzen Udal Plan Estrategikoa aldatzea eta beste dirulaguntza-ildo bat ezartzea, "Gasteizen merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen nahiz ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak" izenekoa, eta, horrenbestez, plan horretan honako bi ildo hauek kentzea: "Gasteizen merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak" eta "Gasteizen ostalaritza-enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak".

Bigarrena. Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrekin bat, onestea honako ildo honen udal-programaren berariazko deialdi publikoa: "Gasteizko udalerriko merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen eta ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak. 2021. urtea".

Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, denak jakinaren gainean egon daitezen:

1. oinarria. Dirulaguntzen ildoak

Merkataritzaren, zerbitzu pertsonalen nahiz ostalaritzaren alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntzak.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea da dirulaguntzak norgehiagoka-araubidez ematea eraenduko dituzten baldintzak arautzea.

Helburu hau dute: Gasteizko udalerrian kokatuta dauden enpresa txikiak ezarri, eraberritu eta moderniza daitezen sustatzea, eta COVID-19ak sortutako krisi sozio-sanitarioak eragindako egoera sozioekonomiko berrira egokitzea.

Itzuli behar ez diren dirulaguntzak dira.

3. oinarria. Enpresa edo pertsona onuradunen betekizunak

Merkataritza-jardueraren bat duten pertsona fisiko nahiz juridikoak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badi-tuzte dirulaguntza-eskabidea egiten duten unetik:

1. 50 langile baino gutxiago izatea.

2. 10 milioi euro baino gehiagokoa ez izatea urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra.

3. Aurreko betekizunak betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25etik gorako partaidetza edo lotura ez izatea bertan.

4. Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egon beharko du enpresak, eta eskabi-dean adierazten den lokalean merkataritza-jarduera eduki, dirulaguntza eskatzen duen unetik aurrera, behintzat.

Enpresaren jarduera nagusia Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren multzo edo epigrafe hauetakoren batekoa izatea:

64: 64: Janari, edari eta tabako salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbu 646: Tabako gaien eta erretzaileentzako artikuluen salerosketa, txikizka, eta 647.5: Janari eta edarien horniketa —tabakoa salbu—, makina automatikoen bitartez).

65: Janariez bestelako produktuen salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbu: 652.1: farmaziak: botika eta osasun eta higiene produktuen salerosketa, txikizka; 654.3: airetiko ibilgailuena; 654.4: ibai eta itsasoko ibilgailuena; 654.5: makinena; 654.6: mota guztietako ibilgailuetarako gurpil-azalen, banden edo aire-ganberena, eta 655: erregai eta lubrifikatzaileen salerosketa, txikizka).

662.2: Era guztietako salgaien salerosketa, txikizka.

671, 672 eta 673: Elikadura-zerbitzua, jatetxe, kafetegi eta tabernetan.

676: Elikadura-zerbitzua txokolategi, izozki-denda eta hortxata-dendetan.

677.9: Jatetxeei dagozkien beste elikadura-zerbitzu batzuk:

681, 682, 683 eta 684: Ostatu-zerbitzuak, hotel, motel, pentsio, ostatu, apopilo-etxe eta apartamentu-hoteletan.

691.1: Etxeko tresna elektrikoaren konponketa.

691.9: Kontsumoko beste ondasun batzuen konponketa, b.i.s.g. (beste inon sartu gabeak).

755: Bidaia-agentziak, 755.1 izan ezik.

971.3: Arropak pasaratzea eta konpontzea.

972: Ile-apaindegiko eta edertasuneko zerbitzuak.

5. Aurreko puntuan adierazitakoa gorabehera, ez zaie dirulaguntzarik emango ekono-mia-jarduera bakarra asteburuetakoa gaueko ostalaritza duten enpresei, salbu eta egiten diren inbertsioen helburua gaueko ostalaritza-jarduera eguneko ostalaritza-jarduera bihurtzea bada. Era berean, ez zaie dirulaguntzarik emango beren jarduera kolektibitateei catering-zerbitzuak eskaintzea duten enpresei.

Bi betekizun horiek ofizios egiaztatu ahal izango ditu Udalak, behar diren ikuskapenak es-tablezimenduetan eginez.

6. Enpresa Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren bi epigrafe edo gehiagotan alta emanda badago, onuraduntzat joko da baldin eta jarduera nagusia diruz lagun daitezkeen atal edo epigrafeetako baten barruan sartzen bada eta gauzatutako ekintzak jarduera horri badagozkio. Ekonomia Jardueren gaineko Zergan adierazitako azalaren banaketa kontuan hartuz zehaztuko da jarduera nagusia: azalera erabilgarririk handiena duen hura joko da jarduera nagusitzat.

7. Gasteizko udalerrian (menpeko toki-erakundeak barne) kokatuta egon beharko du negozioaren lokalak, industrialdeetan izan ezik. Ez da beharrezkoa izango eskabidea egiten duten pertsona edo entitateek helbidea Gasteizko udalerrian edukitzea.

8. Lur-arrasean kokatuta egon beharko du lokalak, eta jendearentzat irekita egon, ohiko merkataritza-ordutegian. Azoketako nahiz merkataritza-zentro edo -galeria pribatueta estabiezimenduak ere aintzat hartu ahal izango dira. Ez dira finantzatuko zerbitzuguneetan (gasolindegietan) kokatutako estabiezimenduak.

9. Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak egunean edukitzea. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntza-eskabidea tramitatzekeo prozesu osoan ere bete beharko da betebehar hori (dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean).

10. Indarrean dagoen araudia zorrotz bete beharko dute enpresa eskatzaileek, hirigintzaren eta arkitekturaren alorrekoa nahiz osasunaren eta higienezaren alorrekoa. Ofizios egiaztatuko da enpresa eskatzaileak arauzko obra-baimena duen, edo, bestela, behar bezala izapidetu duen dagokion erantzukizunpeko aitortpena. Lau hilabeteko epean, obra bukatzen denetik, haren benetako kostuari buruzko aitortpena aurkeztu beharko du enpresak Zerga Ikuskaritzaren Zerbitzuan, eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren likidazioa eskatu.

11. Hala badagokio, terraza (aldi baterako itxitura eduki zein ez) nahiz haren elementu osagarriak instalatzeko behar den udal-lizentzia indarrean edukitzea.

12. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak egiten dituztenak ere (elkarteak, lanbide-elkargoak eta abar).

4. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

Dirulaguntzaren xede den lokalean 2020ko uztailaren 18tik 2021eko ekainaren 18ra bitartean egiten diren inbertsio-proiektuek jaso ditzakete dirulaguntzak.

Behar bezala jaulkitako fakturen bitartez egiaztatu beharko dira egindako inbertsioak, gorago adierazitako datetan, eta horien ordainketa, berriz, Gasteizko Udalari dagozkien ordainagiriak aurkeztuz (ikus 15. oinarria); horretarako epea, 2021eko abustuaren 18an amaituko da (egun hori barne dago). Adierazitako epean (2021eko abustuaren 18ra arte, egun hori barne) fakturen ordainketaren ziurtagirien bitartez (osorik edo partez) ordaindu dela behar bezala egiaztatzen den zenbatekoa bakarrik joko da diruz laguntzeko modukotzat, nahiz eta fakturan ageri den kostua handiagoa izan.

Illo horretatik, ekintza hauetarako jaso ahal izango da dirulaguntza:

— Lokala eraberritzeko obrak: merkataritza-lokala egokitu, berritu edo handitzeko egiten diren obrak oro, eta jarduera abian jarri edo merkataritza-estabiezimendua eraberritzeko aurreproiektu edo proiektu teknikoak kontratatzea.

Atal honetan dirulaguntza jaso dezaketen jarduketak baloratzeko orduan, obra-lizentziaren eskabidearekin edo obraren erantzukizunpeko adierazpenarekin batera aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartu ahal izango da, edo Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren likidaziorako aurkeztutakoa.

Atal honetan dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak baloratzeko orduan, obra-lizentziaren eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa hartuko da kontuan, edo azken likidaziorako aurkeztutakoa.

— Bide publikoan edo espazio pribatueta dauden terrazak (aldi baterako itxitura eduki zein ez) instalatzea, eraberritzea eta egokitzea. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko modukotzat:

Erraz kentzeko moduko aldi baterako itxiturak instalatzea edo elementu desmuntagarriak instalatzea, eta alboetan funtzio hori betetzen dituzten, oztopoa identifikatzeko aukera ematen duten eta gehienez hiru aldetan esparrua mugatzen duten elementu mugigarriak (eguzki-oihalak, aldi baterako estalkiak, albo-babesak, manparak, haize-babesak...).

Terrazetarako altzariak (aterkiak, eguzki-babesak, mahaiak, aulkiak, lore-askak...).

Kanpoko ekipamendua eta hura instalatzea (argiztapen-sistemak, kanpoko berogailuak...).

Nolanahi ere, baldintza teknikoak eta estetika-arauak bete behar dituzte erositako altzari, ekipamendu eta albo-babesek, Gasteizko ostalaritza establezimendu publikoetako eta horiekin parekatuetako terrazak arautzeko ordenantzak ezarritakoaren arabera. Berogailu, lore-aska, albo-babes, aterki eta estalkiak eta mahai altu nahiz baxuak (eserlekuak eduki zein ez) erosteari dagokionez, baimenean ageri den kopurua baino ez da lagunduko diruz.

– Lokalaren ekipamendua: aktibo finko berriko honako elementu hauetan egindako inbertsioak:

Jarduera nagusiarekin zuzeneko zerikusia duten altzariak eta makinak.

COVID-19ren ondorioz sortutako beharrekin zuzenean loturiko makinak eta altzariak, hala nola aire-arazgailuak, bereizteko manparak, metakrilatoak...

Klimatizazio-ekipoak.

Errotuluak, eguzki-oihalak eta pertsianak.

Produktuari atxikita ez dauden lokaleko segurtasun-ekipoak.

Erosten diren egunetik (fakturan ageri den datatik) gutxienez bi urtez eduki beharko dira enpresan aktibo horiek. Halaber, terrazen egiturarekin, ekipamenduekin eta altzariarekin loturiko inbertsioetarako, nahitaezkoa da indarrean dagoen araudi osoa betetzea, dagokion lizentzia indarrean edukitzea, eta terrazak ere estaldura izatea establezimendu nagusiaren erantzukizun zibilaren eta suteetarako kontratuan. Lizentzia indarrean eduki ezean, ez da kontuan hartuko terrazetan egindako inbertsiorik (egituran, ekipamenduan zein altxarrietan izan).

– COVID-19aren inguruko aholkularitza: COVID-19aren kudeaketak eragindako ohiz kanpoko aholkularitza- eta kontsultoria-gastuak. Kontzeptu horretan, diruz lagun daitezkeen gehieneko zenbatekoa: 500,00 euro.

Aurkezten diren proiektuek, diruz laguntzeko modukoak izateko, gutxienez zenbateko hauek izan behar dituzte:

– 2.000,00 euro (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako 64, 65, 662.2, 69, 755, 971.3 eta 972 zenbakiko epigrafeetarako).

– 4.000,00 euro (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako 67 zenbakiko epigraferako).

– 8.000,00 euro (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako 68 zenbakiko epigraferako).

5. oinarria. Ez dira diruz lagunduko

– Erakusteko eta probetarako artikulua, eta gerora salgai jar daitezkeen artikulua.

– Garraio-kostuak, aseguruak, administrazioaren baimen, lizentzia eta antzekoengatik ordaindu beharreko tasak, edo bestelako zerga edo tributuak.

– Garraio-elementuak, telebistak, telefono-terminalak eta abar erostea.

– Lokala erostea, eskualdatze-eskubideak, alokairu-errentak eta frankizietan sartzeko kanonak.

– Mantentze- edo aldatze-gastuak edo piezak konpontzeko gastuak.

- Bulego-materialean, tresnetan, baxeretan, mahai-tresnetan, kontsumigarrietan, COVID-19aren ondorioz egindako gastuak (maskarak, gel hidroalkoholikoak, desinfektatzaileak, eskularruak...) eta antzekoak.
- Finantza-errentamendu edo antzeko formulen bidez egindako inbertsioak.
- Ekipo informatikoak eta haien periferikoak erostea (ordenagailuak, ordenagailu eraman-garriak, saguak, teklatuak, inprimagailuak...), webgune korporatiboa egitea edo gailu mugiko-rrretara egokitzea, kudeaketa-tresnak eta edozein esparrutako softwarea.
- Marketin digitala, enpresaren marketin digitalaren estrategiaren diseinua, enpresaren jarduera nagusiarekin lotutako aplikazioen garapena eta sare sozialen dinamizazioan, posta elektronikoen bidezko marketinean, ospe digitalaren kudeaketan eta katalogo edo karta di-gitalak egiten egindako inbertsioa.
- Kutxa erregistratzaileak edo salgaietarako balantza elektronikokoak.
- Edozein aktibo edo material erostea edo aholkularitzagatiko ohiz kanpoko edozein aholkularitza-gastu, baldin eta unitateko prezio garbia 50,00 eurotik beherakoa badu.
- “Lokalaren ekipamendua” zerrendan berariaz dirulaguntzari egotz dakiokkeen gastu gisa ageri ez den beste edozein aktibo erostea.
- Diruz lagundu daitekeen edozein kontzeptu, baldin eta hornitzaileak dirulaguntza eskatzen duen enpresarekin lotura badu. “Lotura duen enpresa” kontzeptuari dagokionez, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42.3 artikuluko definizioa aintzat hartuko da.

6. oinarria. Baliabide ekonomikoak

2021eko ekitaldiko udal-aurrekontuetako 2021/08 0822.4314.4.8964 “Denda txikientzako laguntzak” partidaren kontura finantzatzeko dira deialdi honetan aurreikusten diren di-ru-laguntzak. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako epigrafearen arabera, zenbateko hau izango dute:

- 175.000,00 euro (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako 64, 65, 662.2, 69, 755, 971.3 eta 972 zenbakiko epigrafeetarako).
- 125.000,00 euro (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako 67 eta 68 zenbakiko epigra-feetarako).

Zuzkidura hori handitu ahal izango da (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregela-menduaren 58. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik), Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez, zeinean Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak parte hartzen baitu, laguntzak adjudikatzeko ebazpenaren aurretik, baldin eta soberako kreditua badago aipatutako sailak kudeatzen dituen laguntza-deialdietakoren batean.

7. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek; aldeztu aurretik, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean laburpen-iragarkia argitaratuko da.

Eskabideak aurkezteko epea 2021eko maiatzaren 31n hasiko da, eta 2021eko ekainaren 18an amaituko da (biak barne).

Deialdi honetako 3. oinarrian adierazitako baldintzak betetzen dituen enpresa onuradunak laguntza eskabide bat aurkeztu beharko du berritze- edo egokitze-lanak egin dituen lokaletako bakoitzeko. Lokal bakoitzeko laguntza bakarra eskatu ahal izango da urtean.

8. oinarria. Laguntza emateko prozedura

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan arautzen diren laguntzak kudeatzea. Hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratu da horretarako, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendariak, Enpresen Zerbitzuko buruak eta Merkataritza Zerbitzuko buruak osatua, zeina arduratuko baita aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeaz, Merkataritza Zerbitzuko teknikariek txostena egin ondoren.

Norgehiagoka-prozeduraren bidez emango dira laguntzak, eta, hortaz, aurkeztu diren proiektuen arteko alderaketa egingo da.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak, hautatze- eta jarraipen-batzordeak proposamena aurkeztu ondoren.

9. oinarria. Ebatzi eta jakinarazteko epea

Gehienez sei hilabeteko epean ebatziko da prozedura, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunetik. Epe hori ebazpen espresurik eman gabe igaroz gero, ezetsizat joko da dirulaguntza-eskabidea.

ALHAOn eta Gasteizko Udalaren webgunearen bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraituz.

Dirulaguntzak emateko nahiz ezesteko erabakiak administrazio-bidea agortuko du, eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik; haren ebazpen espresuaren edo presuntziozkoaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena presuntziozkoa bada, sei hilabeteko epean, presuntziozko ebazpena gertatzen den egunaren biharamunetik.

10. oinarria. Balioespen-irizpideak

1. Inbertsio-proiektua II. eranskinean zehazten diren auzoetan kokatuta egotea (Alde Zaharra, Koroatzea, Angloa, Pilar, Zabalgunea eta Lovaina): 30 puntu.

2. Enpresa eskatzailearen antzintasuna (Ekonomia Jardueren gaineko Zergako datuen arabera): 20 puntu gehienez.

– 10 urtetik gorako antzintasuna: 10 puntu.

– 20 urtetik gorako antzintasuna: 20 puntu.

Oro har, enpresa eskatzaileak diruz lagun daitekeen jarduera ekonomiko bera gauzatzen Gasteizko udalerriko merkataritza-lokalen batean etenik gabe emandako denbora balioetsiko da antzintasun gisa.

Jarduera Gasteizen kokatutako lokal batetik beste batera aldatu bada, enpresa edo pertsona eskatzaileak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan hasierako lokalean izan duen antzintasuna hartu ahal izango da kontuan, baldin eta jarduerak etenik izan ez badu.

Enpresa eskualdatu bada, lehenago zegoen enpresaren antzintasuna kontuan hartu ahal izango da, baldin eta eskualdatzea behar bezala justifikatzen bada eta hasierako enpresaren jarduerari eutsi bazaio.

Enpresa eskatzailearen forma juridikoa aldatu bada, hasierako enpresaren antzintasuna kontuan hartu ahal izango da, baldin eta enpresa edo pertsona eskatzaileak gutxienez ehuneko 33,3ko partaidetza egiaztatzen badu, enpresa batean nahiz bestean.

3. 10 langile baino gutxiago dituzten enpresak (langileen azken hilabeteko TC2 agirien edo zerrenda izendunaren arabera): 10 puntu gehienez.

— 5 langile baino gutxiago: 10 puntu.

— 5 eta 9 langile artean: 5 puntu.

4. Merkataritza-sozietateen partaidetzarik ez duten enpresak (eratzte-eskrituren nahiz geroko aldakuntza-eskrituren arabera): 10 puntu.

5. Merkataritza-lokalean beste hizkuntzaren batean (euskara, ingelesa edo frantsesa) arreta emateko aukera: 5 puntu gehienez.

Enpresak aurkezten dituen ziurtagiri edo titulu ofizialen arabera balioetsiko da:

— Bai Euskarari edo Bikain ziurtagiria dutela egiaztatzen duten enpresak: 5 puntu.

— Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B1 mailaren edo gora-gokoaren baliokide den titulu edo ziurtagiri ofiziala euskarari, ingelesean edo frantsesean duen langilerik badutela egiaztatzen duten enpresak: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

6. Enpresaren jarduera nagusia: 10 puntu.

Jarduera nagusia epigrafe hauetakoren batekoa duten enpresak:

— 64: 64: Janari, edari eta tabako salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbu 646: Tabako gaien eta erretzaileentzako artikuluen salerosketa, txikizka, eta 647.5: Janari eta edarien horniketa —tabakoa salbu—, makina automatikoen bitartez).

— 65: Janariez bestelako produktuen salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbu: 652.1: farmaziak: botika eta osasun eta higiene produktuen salerosketa, txikizka; 654.3: airetiko ibilgailuen salerosketa, txikizka; 654.4: ibai eta itsasoko ibilgailuena; 654.5: makinena; 654.6: mota guztietako ibilgailuetarako gurgil-azalen, banden edo aire-ganberena, eta 655: erregai eta lubrifikatzaileen salerosketa, txikizka).

— 662.2: Era guztietako salgaien salerosketa, txikizka.

— 671, 672 eta 673: Elikadura-zerbitzua, jatetxe, kafetegi eta tabernetan.

— 676: Elikadura-zerbitzua txokolategi, izozki-denda eta hortxata-dendetan.

— 677.9: Jatetxeei dagozkien beste elikadura-zerbitzu batzuk.

— 691.1: Etxeko tresna elektrikoaren konponketa.

— 691.9: Beste kontsumo-ondasun batzuk konpontzea, b.i.s.g. (beste inon sartu gabeak).

— 755: Bidaia-agentziak, 755.1 izan ezik.

— 971.3: Arropak pasaratzea eta konpontzea.

— 972: Ile-apaindegiko eta edertasuneko zerbitzuak.

7. Irigarritasunaren hobekuntzak (proiektu teknikoaren edo oroitidazkiaren arabera): 5 puntu.

8. Aurkeztutako proiektuaren oroitidazkiaren kalitatea: III. eranskinaren arabera: 10 puntu gehienez.

— Enpresaren, jardueraren eta merkataritza-lokalaren deskribapena (1 puntu gehienez).

— Inbertsio-proiektuaren deskribapena eta justifikazio kualitatiboa (8 puntu gehienez).

Aintzat hartuko da argi azaltzea inbertsioaren zergatikoa eta zer eragin izan dezakeen enpresak gaur egungo merkatuan lehiakortasunez kokatzean.

- Inbertsio-proiektuaren deskribapen kuantitatiboa (1 puntu gehienez).

11. oinarria. Proiektuak balioestea eta diru-laguntza kalkulatzea

Aurkeztutako proiektuen balioespina egingo da, 10. oinarrian adierazitako irizpideen arabera.

Bi puntuazio-zerrenda ezberdin egingo dira, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako epigrafeen arabera. Lehenengoa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako 64, 65, 662.2, 69, 755, 971.3 eta 972 zenbakiko epigrafeetarako. Bigarrena, 67 eta 68 zenbakiko epigrafeetarako. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako epigrafe multzo baterako bi zenbatekoetakoren batean kreditu-soberakinik egonez gero, hura erabiliko da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako beste epigrafe multzoan diruz laguntzeko moduko izan diren baina diru faltagatik ordaindu ez diren eskabideen zerrendarako.

Guztira 100 puntu jasotzen duten proiektuek diruz lagun daitekeen inbertsioaren ehuneko 40ra arteko dirulaguntza lortu ahal izango dute. Guztira 0 puntu lortzen dutenek, berriz, ehuneko 25era arteko diru-laguntza lortu ahal izango dute. Puntuaziorik handienaren eta gutxienekoaren arteko gainerako proiektuei proportzio lineala aplikatuko zaie dirulaguntzaren ehunekoa kalkulatzeko, eta balorazioan lortutako puntu bakoitzeko ehuneko 0,15 osagarria gehituko da.

Enpresa bakoitzari dagokion laguntzaren gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko da zer eremutan dagoen kokatuta diruz laguntzekoa den proiektua, eta dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ezarriko da enpresa Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren zer epigrafetan dagoen emanda alta:

A) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako 64, 65, 662.2, 69, 755, 971.3 eta 972 zenbakiko epigrafeetarako:

- Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da inongo kasutan izan 20.000,00 eurotik gorakoa, baldin eta proiektua Alde Zaharrean, Koroatzean, Angloan, Pilarren, Zabalgunean edo Lovainan badago (II. eranskina).

- Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da izan 15.000,00 eurotik gorakoa, baldin eta proiektua II. eranskinean kokatuta ez badago.

B) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako 67 eta 68 zenbakiko epigrafeetarako:

- Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da inongo kasutan izan 10.000,00 eurotik gorakoa, baldin eta proiektua Alde Zaharrean, Koroatzean, Angloan, Pilarren, Zabalgunean edo Lovainan badago (II. eranskina).

- Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da izan 7.000,00 eurotik gorakoa, baldin eta proiektua II. eranskinean kokatuta ez badago.

Hamargarren oinarrian adierazitako irizpideen arabera balioetsita guztira lortzen dituzten puntuazioari jarraituz ordenatuko dira dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak.

Guztira lortutako puntuazio horren arabera ezartzen den hurrenkerari jarraituz emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte. Berdinketa egokituz gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, 10. oinarriko 2. atalean lortutako puntuazioa hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko (II. eranskinean jasota dauden auzoetan kokatuta egotea inbertsio-proiektua). Berdinketak jarraituz gero, 10. oinarriko 3. atalean (enpresa eskatzailearen antzinasuna) lortutako puntuazioa hartuko da aintzat. Azkenik, oraindik berdinketak jarraitzen badu, diruz lagundu daitekeen inbertsio handiena duen eskaerak izango du lehentasuna.

Baldin eta geratzen den saldoa ez bada aski baliagarri dagoen kreditua agortzen duen dirulaguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua ordainduko zaio horri.

12. oinarria. Ordaintzeko modua

Dena batera ordainduko da laguntza, deialdia ebatzi ondoren, eta 15. oinarrian adierazitako moduan justifikatu ondoren.

13. oinarria. Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresa edo pertsonak honako betebeharrak izango dituzte:

1. Udalaren egiaztatze ekintzen mende jartzea, baita haren Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

2. Udalaren laguntza honetarako aurkeztutako gastu beretarako bestelako dirulaguntza edo laguntzarik jasoz gero, Udalari jakinaraztea. Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzari uko egiteko eskabidea aurkeztu beharko du enpresa onuradunak 10 egun balioduneko epean, beste administrazioak dirulaguntza ematen dioneko ebazpena jakinarazten dion egunaren biharamunetik.

3. Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein inguruabar objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udalari jakinaraztea.

4. Laguntza-eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren eskura jartzea.

5. Dirulaguntza eman ondoren, norako eman den, establezimendu horretan bideratzea jarduera ekonomikoa gutxienez bi urtez.

Adierazitako epe hori igaro aurretik ixten bada establezimendua, enpresa onuradunak jakinarazi egin beharko dio Udalari, eta emandako dirulaguntzaren zati bat itzuli, jarduera bertan behera geratzen den egunetik bi urteko epe hori (dirulaguntza eman zen egunetik) betetzeko falta den denborarekiko proportzioan. Salbuespen gisa, ez da jasotako dirulaguntza itzultzeko eskatuko, eman zenetik bi urte igaro ez badira ere, titularrak gaixotasun larria duelako edo hil delako ixten bada negozioa.

Jarduera Gasteizko udalerrian kokatutako beste lokal batera aldatzen bada, baloratu egingo da jardueraren lokal berrian diruz lagundutako inbertsioei eusten zaien, eta jarduera lekuz aldatzen den egunean bi urteko jarduera osatzeko falta den denbora-tartea (dirulaguntza eman zen egunetik) kontuan hartuko da. Irizpide horiek oinarri harturik, enpresa onuradunak itzuli beharko duen dirulaguntzaren zati proportzionala kalkulatu da.

14. oinarria. Beste laguntza eta dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Programa honetan aurreikusitako laguntzak beste laguntza batzuekin metatu ahal izango dira (estatuko, Europar Batasuneko zein nazioarteko erakundeetako eremu publikoko zein pribatuko beste erakunde batzuek emanak), baldin eta gainditzen ez bada ordaindutako inbertsio garbi osoa.

Nolanahi ere, eskuratzen diren dirulaguntzen baturak ezingo du gainditu dena delako jardueraren kostu garbia, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, laguntza edo baliabiderek batera.

Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntza txikitu egingo da, soberako zenbatekoan.

15. oinarria. Nahitaezko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie dirulaguntza-eskabideei:

— Eskabide-orria eta zinpeko aitortpena: I. eranskina.

- Pertsona fisikoek: nortasun-agiriaren fotokopia.
- Pertsona juridikoek, honako hauen kopiak IFZ.

Enpresaren eratze-eskriurak nahiz enpresaren ordezkariari edo helbide sozialari eragiten dieten geroagoko aldakuntzak.

Ordezkaritza-ahalmenak.

Ordezkaritza-ahalmena duen pertsonaren nortasun-agiria.

– Soldatapeko langilerik ez badu: azken hilabeteko autonomo-kuotaren ordainagiria eta enpresaburuaren jarduera-ezaren ziurtagiria, edo, horrelakorik ezean, kotizazio-kontu baten egoeraren txostena.

– Soldatapeko langilerik badu: TC2 edo azken hilabeteko langileen zerrenda izenduna, Gizarte Segurantzak jaulkia.

– Deskripzio-oroitidazkia, III. eranskinaren arabera (enpresaren deskribapena eta proiektuaren oroitidazki kualitatiboa eta kuantitatiboa).

– Establezimenduari dagokion jabetza-agiriaren edo alokairu-kontratuaren kopia. Lokala alokatzeko kontratuan berariaz adierazten ez bada, eraberritze-obra egiteko baimena, errentatzaileak emana.

– Halakorik izanez gero, kontratatutako proiektu teknikoaren kopia, non lokalaren azalaren banaketa jasotzen baita.

– Bai Euskarari ziurtagiriaren kopia edo Bikain ziurtagiria lortu izana argitaratzen den EHAA-ren orriaren kopia, halakorik izanez gero.

– Enpresako langileek halakorik izanez gero, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko euskararen, ingelesaren edo frantsesaren B1 mailaren edo goragokoaren baliokide den titulu edo ziurtagiri ofiziala, langile haien izenean.

– Fakturen kopiak.

– Fakturen ordainketa egin izanaren egiaztagiria: dirutan egindako ordainketen egiaztagiria edo enpresa hornitzaileen kobrantza-egiaztagiria onartzeko, ezinbestekoa da ordainketak egiteko unean indarrean dagoen lege-mugatik beherakoa izatea hornitzaile beraren fakturaren edo faktura multzoaren zenbatekoa, guztira, eta haietan ordaintzeko beste modurik ez adieraztea. Webgune honetan kontsulta daiteke lege-mugapen hori: www.agenciatributaria.es.

Gainerako kasuetan, ordainketaren banku-egiaztagiria aurkeztu beharko dira. Ez da onartuko banku-egiaztagiririk baldin eta enpresa eskatzaileak hornitzaileari faktura ordaindu diola argi eta garbi gera dadin nahikoa daturik jasotzen ez badu. Oro har, ez dira egiaztagiri gisa onartuko internet bidez eskuratutakoak, banku-erakundeak balioztatuta edo zigilatuta ez badaude.

Ordainketa-egiaztagiria aurkezteko epea 2021eko abuztuaren 18an bukatuko da.

Ofizios begiratuko da ea pertsona edo enpresa eskatzaileak beteta dituen Gasteizko Udalarekiko, Arabako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko zerga-betebeharrak, eta ea dituen nahitaezko obra-baimena, eta, terrazetan (aldi baterako itxitura eduki zein ez) inbertsiorik aurkeztu badu, ea indarrean dagoen lizentzia eta baimena daukan horren elementuak jartzeko Gasteizko ostalaritza establezimendu publikoetako eta horiekin parekatuetako terrazak arautzeko ordenantzaren arabera.

Eskabidea aurkezteak Gasteizko Udalari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean eskatzeko baimena ematea dakar berekin (I. eranskina). Hala ere, enpresa eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimen hori. Horrela bada, Arabako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak beteta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Sozietate zibilen eta ondasun-erkidegoen kasuan, enpresak zein bazkideek beteta eduki behar dituzte Gasteizko Udalarekiko, Arabako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko zerga-betebeharrak.

16. oinarria. Akatsak zuzentzea

Dirulaguntza-eskabideari ez bazaizkio deialdian galdatutako agiriak eransten, hamar eguneke epea emango zaie eskatzaileei falta zaizkien agiriak aurkezteko (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua ildotik), eta halaber ohartaraziko hala egin ezean eskabidea bertan behera utzizat joko dela. Jakinarazpenak eskabidean adierazitako helbide elektronikoaren bidez egingo dira lehentasunez, hartu-agiria eskatuta.

17. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legea Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araudia, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Vitoria-Gasteizen, 2021ko apirilaren 14an


Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI

I. eranskina: Laguntza-eskabidea eta zinpeko aitortpena

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/00/51/60051.pdf>

**II. ERANSKINA: ANGLOA, ALDE ZAHARRA, KOROATZEA, LOVAINA, PILAR
ETA ZABALGUNEA.**

Auzo hauekako kaleen plano orientagarria: Angloa, Alde Zaharra, Koroatzea, Lovaina, Pilar eta Zabalgunea.



Aipatutako auzo horietako kaleak eta zenbakiak esteka honetan <http://www.vitoria-gasteiz.org/wd004/docs/es/tramos.xls> kontsulta daiteke zehaztasun handiagoz:

III. eranskina: Deskripzio-oroitidazkia

Proiektuaren oroitidazki kualitatiboa

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/76/17/87617.pdf>

Fakturen zerrenda

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/76/18/87618.pdf>